

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ANDOAINGO UDALA

Hirigintza

HHE.48 Illarramendi hirigunea guneko Urbanizazio Proiektua hasierako onspena.

Alkatetzak 2018ko abenduaren 26an eman zuen 849/2018 zenbakiko ebazpenaren bidez, hasierako izaeraz, onartu da Hiri Antolaketako Plan Orokorreko HHE.48 Illarramendi hirigunea guneko Urbanizazio Proiektua, Udal honetan 2018ko azaroaren 29an Balfer Norte S.L. - Plastigaur enpresak aurkezturikoa, eta aipatutako ebazpenean azaltzen diren baldintzak bete behar dituelarik.

Ekainaren 30eko Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 196.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, onspenebapena, Urbanizazio Proiektua eta horri dagokion espediente eta HHE.48 Illarramendi hiriguneari dagokion Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa, 2018ko ekainean Ekolur enpresak idatzia, jendaurrean daude egoki irizten den alegazio edo iradokizun oro aurkeztu ahal izan dadin:

a) *Espedientea non eskuratu daitekeen:* Hirigintza, lantsaileko bulegoetan 9:30etatik 13:30era.

Udalaren web orrian, www.andoain.eus, ere eskuratu ahal izango da: Informazio gehiago eska daiteke hirigintza@andoain.eus helbide elektronikoan.

b) *Espedientea aztertzeko eta, hala balegokio, alegazioak eta iradokizunak aurkezteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN edo prentsan argitaratzen den azken argitalpen egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

c) *Nork aurkez ditzake alegazioak:* edozein pertsona fisiko edo juridikok.

d) *Non aurkeztu:*

— Udaletxean dagoen Sarrera-Erregistroan (Andoaingo Udala, Goikoplaza, z/g 20140 Andoain), bulego-ordutegian.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren Sarrera Erregistroetan, sinatutako hitzarmenaren arabera.

— Postetxeetan.

Andoain, 2018ko abenduaren 21a.—Alkatea. (8538)

AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

Urbanismo

Aprobación inicial del Proyecto de Urbanización del ambito A.I.U. 48. Illarramendi.

Mediante resolución de Alcaldía n.º 849/2018, de fecha 26 de diciembre de 2018, fue aprobado, con carácter inicial, el Proyecto de Urbanización del ambito A.I.U. 48. Illarramendi del Plan General de Ordenación Urbana, presentado con fecha 29 de noviembre de 2018 por Balfer Norte S.L. - Plastigaur, debiendo dar cumplimiento a las condiciones que en dicha resolución se indican.

De conformidad con lo establecido en el art. 196.3 de la ley vasca 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, la resolución aprobatoria, el Proyecto de Urbanización y el expediente correspondiente, así como el Estudio de Impacto Ambiental del AIU 48 Illarramendi, redactado con fecha junio de 2018 por Ekolur, se someten a información pública al objeto de que se presenten las alegaciones oportunas:

a) *Lugar donde se encuentra a disposición del público el expediente:* en el departamento de Urbanismo de 9:30 a 13:30 hs.

En la web municipal www.andoain.eus. Se podrá solicitar información a través del correo electrónico en la siguiente dirección: hirigintza@andoain.eus.

b) *Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar alegaciones y sugerencias:* 30 días hábiles, a contar del día siguiente al de la última publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa o en prensa.

c) *Quiénes pueden hacerlo:* cualquier persona física o jurídica.

d) *Lugar de presentación:*

— En el Registro de Entrada del Ayuntamiento, situado en la Casa Consistorial (Goikoplaza, s/n 20140 Andoain) en horario de oficinas.

— En los Registros de Entrada de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del Gobierno Vasco, según convenio.

— En las Oficinas de Correos.

Andoain, a 21 de diciembre de 2018.—La alcaldesa. (8538)